

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3409

AGINDUA, 2022ko uztailaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, dirulaguntzen deialdia egitekoa Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek 2022 ekitaldian konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten beren jarduera-eremuan.

Urriaren 10eko 1/2013 Legeak (Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa) esaten du Eusko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriak hartuko dituela lan-esperientziaren eta bide ez-formal zein informalen bitartez ikasitakoa aitortzea sustatzeko.

1/2013 Lege horretan bertan aurreikusten da Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak gizarte-eragileen parte-hartzea bideratuko dutela ohiko prestakuntza-sistemetatik kanpo lortutako konpetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak behar bezala funtzionatzeko.

Bestalde, ekainaren 28ko 4/2018 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa) dio Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua dela administrazio publikoek, ordezkariarik handieneko antolakunde enpresarial eta sindikalek eta lanbide-heziketako eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeek parte hartzeko organoa, zeinean eztabaidatu, adostu eta bilatuko baita lanbide-heziketako politika guztien gaineko akordioa, orokorrean.

Bestalde, azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuak (lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoan) Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua konfiguratzeko du eta dio aholku-organoa izango dela egin beharreko deialdien plangintzan, eta ebaluatu beharreko pertsona-kopurua, egiaztatu daitezkeen konpetentzia-atalak eta deialdi bakoitzeko aholkulari eta ebaluatzaileak izendatzeko irizpideak kontsultatuko zaizkiola. Deialdien garapenari buruzko azken txostena jaso behar du eta Lanbide Heziketako Sailburordetzak kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko txostena igorri behar dio, prozedura osoaren xede, helburu eta printzipioak betetzen direla ziurtatuz, eta lortutako emaitzen helburuen arabera ebaluatuta prozedura.

Ikaskuntza ez-formalen aitortza egiteko prozeduraren oinarritzko esparru arautzaileak funtsezko aldaketak izan ditu duela gutxi. Uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak (lan-esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ezagutzeari buruzkoak) hasierako bertsioan deialdi puntualen sistema bat aurreikusten zuen, eta ebaluatu eta egiaztatu beharreko gaitasunen unitateak eta partaide-kopurua mugatzen zituen. Aipatutako 1224/2009 Errege Dekretu hori aldatzen duen martxoaren 9ko 143/2021 Errege Dekretuak arau honetan sartuko aldaketen ondorioz, mailgutasun handia du prozedurak, eta orain lanbide-heziketako eskaintzan sartutako gaitasun unitate guztiak iraunkorrak eta irekiak dira. Urrats garrantzitsua da, hautagaiak bideratu eta aholkatu ondoren erabaki baititzake bere profilarantzako eskumen-unitaterik egokienak, eta horien ebaluaziora bideratu.

Gure inguruan, Lanbide Heziketako sailburuordearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez egokitu da prozedura, Ebazpen horren bidez lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratu-

tako kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura ireki eta iraunkorra ezarri baita Euskal Autonomia Erkidegoan.

Prozeduran sartutako funtsezko aldaketez gain, konpetentziak ebaluatu eta egiaztatzeko sistemaren erabilera sustatzeko borondatea dago, sistema horren erabiltzaile-kopuruan jauzi kuantitatibo handia egon dadin berehala. Horrek guztiak esan nahi du prozedurarekin zerikusia duten administrazio-organoek nahiz lanbide-heziketako eredu konbinatuko ikastetxe espezializatuak parte-hartze aktiboa izan behar dutela prozedurako zereginetan.

Era berean, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek aha-lerin gehigarri handia egin behar dute beren jarduera-eremuan, lanbide-heziketan zerikusia duen gizarte-sareko kide diren heinean; ahalegin horrek prozedurako zereginen garapen eraginkorrari lagundu behar dio eta horrek ondorioak izango ditu gizarte osoan, pertsonen enplegarritasunean eta euskal enpresen lehiakortasunean aurrera egin ahal izango baita.

Agindu honen bidez ahalegin gehigarri hori babestu nahi da laguntzen bidez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek bitarteko pertsonalak areagotu ditzaten berariaz kontratatuz edo eskusibotasunez esleituz teknikari espezializatuak, beren jarduera-eremuan, gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko sistema sustatu eta bultzatzeko lanak egin ditzaten.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2022. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, zeina Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez onartu baitzen.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari egiteko hauek egozten dizkio, besteak beste: hezkuntza- eta ekoizpen-sektoreek Lanbide Heziketako ikastetxeetako bizitzan parte har dezaten bultzatzea eta lan-esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aitortzeko ekintzak planifikatzea, Lan eta Enplegu Sailarekin koordinatuta.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten enpresa-erakundeak eta sindikatuak dirulaguntzen emateko deialdia egitea, beren jarduera-eremuan kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurekin zerikusia duten jarduera sustatzaileak eta eragileak garatzeko, baita horiek behar bezala gauzatzeko behar diren koordinazio- eta kudeaketa-lanak egiteko ere.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Agindu honetako dirulaguntzen erakunde onuradunak izan daitezke:

a) Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten enpresa-erakundeak eta sindikatuak.

b) Aurreko paragrafoan definitutako erakundeen antolaketa federatuak edo konfederatuak.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduera eta gastuak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako finantza daitezkeen jarduerak izango dira honako hauek:

a) Dibulgazio-jardueren xedea da aditzera ematea lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratutako kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko

prozedura modu iraunkorrean irekita dagoela, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako eskaintzan jasota dauden konpetentzia-atal guztietarako.

b) Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemaren erabilera sustatu eta pizteko jarduerak, erabiltzaile kopuruan jauzi kuantitatiboa egiten laguntzeko.

c) Apartatu honetako aurreko paragrafoetan definitutako jarduerak behar bezala gauzatzeko erakunde onuradunek egin beharreko zereginak koordinatzea eta kudeatzea.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira aurreko paragrafoan definitutako jarduerak garatzeko berariaz kontratatutako edo eskusibotasunez esleitutako langileen pertsonal-gastuak.

Ondorio horietarako, egotz daitezkeen kostutzat hartuko dira ordainsariak eta erakunde onuradunaren konturako karga sozialak.

3.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2022ko ekitaldi ekonomikoan gauzatu beharko dira. Zentzu horretan, 2022ko abenduaren 31 baino lehen benetan ordaindu dena hartuko da egindako gastutzat.

4.– Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatua aplikatuko da.

4. artikulua.– Aurrekontu-hornidura.

Agindu honen xede diren jarduerak diruz laguntzeko zenbatekoa, guztira, laurehun eta hirurogeita zortzi mila eurokoa (468.000,00) izango da.

5. artikulua.– Parte hartzeko betekizunak.

Edonola ere, agindu honen deialdiko dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, interesdunek honako hauek bete behar dituzte:

a) Zergen arloko betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeko betekizunak ordainduta izatea. Betekizun horiek iraun behar dute dirulaguntza likidatu arte eta egiaztatu egingo da bete egiten direla bai emateko orduan bai ordaintzekoan.

b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen lege-debekurik ez izatea, sexuagatiko diskriminazioagatik gertatutakoak barne, 1/2022 Legearen arabera –1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa–.

c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek prozedura honetako izapide guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko baliabide elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egingo dituzte.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak –Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren bidez aldatua– eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak, zeinaren bidez onartu baitzen Platea E-Administrazio Plataforma Teknologikoa.

3.– Eskabideak bide elektronikoz nola izapidetu, erantsi beharreko dokumentazio-ereduak eta deialdi honi lotutako gainerako izapideak honako helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1217201>

4.– Eskabidea egin ondorengo izapideak, baita jakinarazpen eta justifikazioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» gunearen bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide elektroniko honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Izapidetze elektronikoa ordezkarri baten bidez ere egin ahal izango dira, eta, horretarako, ordezkarria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarrien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea.

1.– Eskabideak (I. eranskina), baldintza guztiak behar bezala beteta, modu elektronikoan aurkeztu behar dituzte, agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hilabeteko epearen barruan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez ere hiru pertsonentzako eska dezake laguntza. Pertsona bat baino gehiagorentzako laguntza eskatuz gero, bakoitzak Lurralde Historiko desberdinean garatu beharko du jarduera.

3.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

4.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuaren (azaroaren 11ko 1/1997) 50.6 artikulua betez, erantzukizunpeko adierazpen bat sartu beharko da eskabidean, honako inguruabar hauek egiaztatzeko:

a) Xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik ez eskatu eta jaso izana administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.

b) Erakunde eskatzaileak egiaztatu behar du ez duela administrazio- edo zigor-arloko zehapenik, laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dionik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

c) Ez egotea sartuta martxoaren 3ko Eusko Legebiltzarraren 1/2002 Legeko (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa) azken xedapenetatik laugarren-goan xedatutako inguruabarretan.

d) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. atal-letan zehaztutako egoeretakoa batean ez egotea.

f) Egiazkoak izatea eskabideko datuak eta emandako dokumentazioa, eta betetzea indarreko araudian dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak.

5.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteak baimena emango du Lanbide Heziketako Sailburuordetzak zuzenean egiazta dezan dirulaguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten administrazio-agiriak aurkeztu beharko ditu.

8. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerekin batera (I. eranskina), honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura bultzatzeko jardueraren planak, baita horiek behar bezala egiteko beharrezko koordinazio- eta kudeaketa-lanaren ere, honako elementu hauekin:

– Lortu beharreko helburuen eta sustatzeko eta bultzatzeko jarduerak garatzeko ekintzen zehaztapena, eta horiek behar bezala garatzeko koordinazio- eta kudeaketa-lanen zehaztapena.

– Jarduera Planaren egitura eta hedapenaren definizioa eta kontratatu beharreko edo eskusitasunarekin esleitu beharreko pertsonen zereginen eta lanaren zehaztapena.

– Esperotako emaitzak eta jardueraren planaren jarraipenaren eta ebaluazioaren adierazleak.

b) Eskatutako zenbatekoaren zehaztasuna (II. eranskina).

c) Agindu honetako 2. artikuluko a) apartatuan definitutako erakundearen antolaketa federatuek edo konfederatuek aurkeztuz gero eskaera, izaera hori egiaztatzeko agiria aurkeztuko da.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskabideak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, erakunde interesatuari eskatuko zaio hamar eguneko epean gabezia konpon dezala edo beharrezko agiriak aurkez ditzala. Hala egingo ez balu, eskarian atzera egin duela esan nahiko du, ebazpenaren ondoren. Hori guztia, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

10. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoa.

Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza zuzendaria izango da agindu honetan deitutako laguntzen organo kudeatzailea.

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Eskabideen balorazioa, Agindu honetako 13. artikuluan xedatutako irizpideen arabera, honako kide hauek izango dituen batzorde batek egingo du:

Presidentea: Nicolás Sagarzazu Alzua, Plangintza eta Antolaketako zuzendaria, edo haren ordezkaria.

Kideak:

Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

Beatriz Aranaga Elorriaga andrea, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkaria.

Maite Lizartza Urrestarazu andrea, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkaria.

Mikel Imaz Gorrotxategi jauna, Arabako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkoa.

Pablo Gaztelumendi Martínez jauna, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkoa; idazkari-lanetan arituko da, hitzarekin baina botorik gabe.

2.– Balorazio-batzordeak, aurkeztutako eskabideak ebaluatutakoan, behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori agindu honen 6. artikuluan ezarritako baliabide elektronikoen jakinaraziko zaie onuradunei, eta 10 egun naturaleko epea emango zaie, halaber, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iriztitako alegazioak aurkez ditzaten. Hamar egun naturaleko epea igarotzen bada jakinarazpenaren edukira sartu gabe, jakinarazpena baztertutzat joko da, eta, prozedurari jarraikiz, izapidea gauzaturat joko da, salbu eta, ofizioz edo hartzaileak eskatuta, horra sartzea teknikoki edo materialki ezinezkoa dela egiaztatzen bada.

3.– Aurkeztutako alegazioak aztertuta, balorazio-batzordeak prozeduraren ebazpen-proposamena egingo du, dirulaguntza ematea proposatutako eskatzaileen zerrenda adierazita, baita zenbatekoa ere, eta horretarako jarraitutako ebaluazioa eta balorazio-irizpideak zehaztuko ditu proposamen horrek. Plangintza eta Antolaketako zuzendariak, organo instrukzio-egile gisa, Lanbide Heziketako sailburuordeari bidaliko dio proposamen hori, ondoren ebazpena eman dezan.

4.– Ebazpenerako behin-behineko eta behin betiko proposamenek ez dute eskubiderik sortzen onuradun gisa proposatutako pertsonen alde, harik eta emateko ebazpena jakinarazten zaien arte.

12. artikulua.– Zenbatekoa eta emateko prozedura.

1.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko, lehia bidezko konkurrentzia-prozedura erabiliko da. Horretarako, hots, eskariak hurrenkera jakin batean jartzeko, aurkeztutako eskabide guztiak elkarrekin alderatuko dira, baina betiere 13. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan harturik, 1etik 10erako puntuazioarekin.

Laguntzak esleitzeko muga artikuluko honetako 2. apartatuan ezarritakoa izango da, eskura dagoen kreditua agortu arte; eta gutxienez 5 puntu lortu eta aipatutako irizpideak ezarriz balorazio-irizpideak hoberena lortu dutenei emango zaie. Dena dela, 5 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskari guztiek pertsona bat kontratatze/lesleitzeko laguntza lortuko dute, eta bigarren eta hirugarren pertsona kontratatze/lesleitzeko dirulaguntza-lehiaketako arauak ezarriko dira.

2.– Diruz lagundu daitezkeen jardueretarako berariaz kontratatutako edo eskusiboko esleitutako pertsona bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa kontratatze/lesleitzeko aurreikusitako dataren eta jarduerak amaitzeko eskabidean aurreikusi eta adierazitako dataren (II. eranskina) arabera finkatuko da. Erakunde onuradun bakoitzak diruz lagundu daitezkeen hiru pertsonen gastuen zenbatekoa jaso ahal izango du eta eskusibotasunez kontratatutako/esleitutako pertsona bakoitzeko dirulaguntza ezingo da izan urteko 52.000 euroren zenbateko proportzionala baino handiagoa.

13. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Jarduera-plana irizpide hauei jarraikiz baloratuko da, dagozkien puntuazioekin:

a) Helburuen garrantzia eta ekintza zehatzak jardueraren planean egokitzea. Helburuen garrantzia kontuan izango da, deialdiko xedeekin duten harremanaren arabera eta sustapen- eta bultzatze-jarduerak garatzeko jarduerak zehatzen egokitzapena baloratuko da (gehienez, 4 puntu).

b) Jarduera-plana hedatu eta egiteko egitura eta metodologia egokitzea (gehienez 3,5 puntu).

c) Jarraipen-adierazleen egokitasuna eta jarduera-planaren ebaluazioa. (gehienez, 2,5 puntu).

14. artikulua.– Dirulaguntza emateko prozedura amaitzea, jakinaraztea eta publikotasun-prozedurak.

1.– Balorazio Batzordearen proposamena kontuan izanda, Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du prozedura, eta dirulaguntza ematea edo, dagokionean, eskabidea ukatzea edo ez onartzea adostuko du; dagozkion ebazpenean zehaztuko dira zergatiak.

2.– Ebazpen hori banaka jakinaraziko zaie interesatuei gehienez ere Agindu honek ondorioak izaten dituenetik sei hilabeteko epean. Jakinarazpen hau dena delakoa izan arren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpena.

3.– Zehaztutako epean berriazko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ezetsizat joko dituzte eskaerak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarri bezala; hori horrela izanik ere, lege horren arabera, Administrazioak berriazko ebazpena egin beharko du.

4.– Prozeduraren ebazpenak ez du amaitzen administrazio-bidea, eta gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da haren aurka Hezkuntzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

15. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Agindu honen xede diren dirulaguntzen onuradunek, 2023ko urtarrilaren 10a baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Jardueraren memoria: dirulaguntzaren babesean eskusibotasunez kontratatutako/esleitutako pertsona bakoitzak egindako jardueren azalpen zehatza izango du agiri honek, eskariarekin batera aurkeztutako jarduera-planeko jardueren banakapenaren arabera. Era berean, lortutako emaitzak zehaztuko dira jarduera-planean ezarritako adierazleen arabera. Dena dela, egindako ekintza-kopurua adierazi beharko da. Eranskinarekin batera eskusibotasunez kontratatutako/esleitutako pertsonen curriculuma aurkeztuko da.

b) Memoria ekonomiko justifikatzailea (III. eranskina): Agiri horretan dirulaguntzaren babesean eskusibotasunez kontratatutako/esleitutako pertsonen pertsonal-gastuen zerrenda bat egongo da. Eranskinarekin batera justifikazio-agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko lan-kontratuaren benetako kopia edo, hala badagokio, esleitutako pertsonaren dedikazio eskusiboaren egiaztagiria.

– Dirulaguntzak estalitako aldiari dagozkion nominen benetako kopia, eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

– Dirulaguntzek estalitako aldiari dagozkion erakunde onuradunaren edo haren antolaketa federatuen edo konfederatuen gizarte-segurantzako gastuak egiaztatzeko kotizazio-agiria.

2.– Justifikazio-agiriak aurkezteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitarteko elektronikoak erabili beharko dira, honako helbide honetako Nire karpeta atalaren bitartez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Onuradunek jatorrizko justifikazio-agiri guztiak izan behar dituzte zaintzapean eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura, hark eskatzen baditu ere.

16. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Laguntza bi epetan ordainduko da:

a) Lehena, emandako laguntza osoaren % 40, laguntza onartu ondoren ordainduko da, 20.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Gainerakoa (% 60), berriz, justifikazioa 15. artikuluan adierazitako epean eta baldintzetan aurkeztu ondoren.

2.– Ordainketa horiek egin ahal izateko, organo kudeatzaileak egiaztatu beharko du onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.5 artikuluan adierazitako eskakizun guztiak betetzen dituela. Era berean, ordainketak egiteko baldintza izan daiteke deialdian edo laguntza emateko ebazpenean eskatzen den dokumentazioa aurkeztea.

3.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

17 artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

Erakunde onuraduna Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuren batean egonez gero, Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa zuzendaritzako titularrak, ez-betetze espedientea egin ondoren non interesdunari entzunaldia emango zaion, ebazpen baten bidez adieraziko du onuradunak dirulaguntza jasotzeko eskubidea osorik edo partez galdu duela eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoa osorik edo partez itzuli behar diola, berandutze-interesekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, atzemandako ez-betetzearen mailaren proportzioan, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zen) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraituz eta, itzulketa partziala izanez gero, 38/2003 Legearen 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Aipatutako diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira legezko ondorioetarako.

18. artikulua.– Ebazpena aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, hasiera emango zaio itzultzeko prozedurari. Horretarako, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak aldatzeko ebazpena emango du eta, han, eman diren dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

19. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasuna.

Agindu honetan deitutako dirulaguntzak bateraezinak dira xede bera duten erakunde publikoen edo pribatuen dirulaguntzekin.

20. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

1.– Erakunde onuradunek laguntzaren xede diren jarduerak egiteko betebeharra dute.

2.– Halaber, betebeharrak espezifiko hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Erakunde onuradunek, esleitzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo hamar egun naturaleko epean berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Agindu honen baitan diruz lagundutako gastuak dituzten pertsonak kontratatzea edo esklusibotasunez esleitzea, gehienez ere dirulaguntza onartu ondorengo edo eskarian kontratatzeke/esleitzeko aurreikusitako dataren ondorengo 15 egun naturaletan.

c) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko kontratatutakoan edo esklusibotasunez esleitutakoan, horien nortasunaren berri ematea Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

d) Emandako dirulaguntza justifikatzea 15. artikuluan jasotakoaren arabera.

e) Dirulaguntza zein xedetarako eman den, hartarako erabiltzea.

f) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribaturengandik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

g) Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

h) Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2 artikuluko gainerako betebeharrak guztiak betetzea; zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea haiek eskatzen duten edozein informazio, dirulaguntzen xedea fiskalizatu ahal izan dezaten.

i) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

21. artikulua.– Jarraipena.

Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak egingo du diruz lagundutako jardueren jarraipena, behar bezala gauzatzen ari direla bermatzeko.

22. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Lanbide Heziketarekin lotutako laguntza eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: laguntza ekonomikoen eskaerak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileetarako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: onuradunek eskubidea dute datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/047400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan deitutako laguntzek EBko Funtzionamendurako Tratatuaren 107. 1 artikuluan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ez dituztenez, ez dira estatuaren laguntzat hartzen; beraz, ez zaio Europako Batzordeari jakinarazpenik egin behar.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 5a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2022ko uztailaren 27a, asteazkena

I. ERANSKINA

ESKABIDE ELEKTRONIKOAREN EREDUA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua: Zenbakia:

Erakundearen izena:

Ordezkarria

Izen-abizenak:

Identifikazio-dokumentua: Zenbakia:

Erakundearen barruko kargua:

Posta elektronikoa:

Telefono-zenbakia:

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea

Lurraldea / Probintzia:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

- Elektronikoa: Nire karpeta ataleko jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, identifikazio-modu elektronikoa bat behar da.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa edo SMS bidezko aurretiazko abisuen sistema erabili nahi duzu?

Abisu-kanala Telefono-zenbakia / Posta elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

Euskara

Gaztelania

Eskatutako kopurua

Dirulaguntza eskatzen den pertsona-kopurua, guztira:	Eskatutako zenbatekoa, guztira

* Erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez ere hiru pertsonentzako eska dezake laguntza. Pertsona bat baino gehiagorentzako laguntza eskatuz gero, bakoitzak Lurralde Historiko desberdinean garatu beharko du jarduera.

Erantzukizunpeko adierazpenak

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

*Bateragarritasun-adierazpenak

Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.

Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.

Ordainduta dauzka dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretako batean ez egotea.
- Ez dago sartuta martxoaren 3ko Eusko Legebiltzarraren 1/2002 Legeko (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa) azken xedapenetatik laugarrengoan xedatutako inguruabarretan.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.

Era berean, adierazten dut badudala baldintza horiek betetzen ditudala egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko dudala eskatzen zaidanean, eta hitz ematen dudala aurreko betebeharrak betetzen jarraituko dudala aitorten edo jardun horri dagokion denboran.

Erantzukizunpeko adierazpenek eta komunikazioek aukera emango dute aurkezten diren egunetik aurrera eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko edo jarduera bat hasteko, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoek esleituak dituzten egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. 69.3. artikulua)

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratu dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. 69.4. artikulua)

Zer dokumentu eman diren

Dokumentu mota	Izena

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzekoak

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofizioz egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek.

Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia–GSDN).

- EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.).

Oharra: onartu ezean, prozeduran eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

(lekua)
(Titularraren izenpe elektronikoa)

(data)

2022ko uztailaren 27a, asteazkena

II. ERANSKINA
ESKATUTAKO ZENBATEKOAREN ZEHAZTASUNAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA:

ESKATUTAKO ZENBATEKOAREN LABURPENA				
	Finantzatu daitezkeen jarduerak garatuko diren Lurralde Historikoa	Kontratazkeko/esklusibotasunez esleitzeko aurreikusitako data	Dirulaguntzaren xede diren jarduerak amaitzeko aurreikusitako data	Kontratutako/esleitutako pertsona bakoitzeko eskatutako zenbatekoa
1. pertsona				
2. pertsona				
3. pertsona			Eskatutako zenbatekoa, guztira	

ESKATUTAKO ZENBATEKOAREN ZEHAZTASUNAK				
1. pertsona				
Nominaren hilabetea	Ordainsarien zenbatekoa (1)	Kontratazalearen kargurako gizarte-kargen zenbatekoa (2)	Eskatutako zenbatekoa, guztira (1+2)	
		Eskatutako dirulaguntza, guztira		

2. pertsona				
Nominaren hilabetea	Ordainsarien zenbatekoa (1)	Kontratazalearen kargurako gizarte-kargen zenbatekoa (2)	Eskatutako zenbatekoa, guztira (1+2)	
		Eskatutako dirulaguntza, guztira		

3. pertsona				
Nominaren hilabetea	Ordainsarien zenbatekoa (1)	Kontratazalearen kargurako gizarte-kargen zenbatekoa (2)	Eskatutako zenbatekoa, guztira (1+2)	
		Eskatutako dirulaguntza, guztira		

2022ko uztailaren 27a, asteazkena

III. ERANSKINA
JUSTIFIKAZIO-MEMORIA EKONOMIKOA

ERAKUNDE ONURADUNA

JUSTIFIKATUTAKO ZENBATEKOAREN LABURPENA

	Dirulaguntzaren babesean kontratatutako/esklusibotasunez esleitutako pertsonaren izen-abizenak	Nortasun-agiriaren zenbakia	Finantzatu daitezkeen jarduerak garatu diren Lurralde Historikoa	Kontratazeko/esklusibot asunez esleitzeko data	Dirulaguntzaren xede diren jarduerak amaitzeko data	Kontratututako/esleitutako pertsona bakoitzeko justifikatutako zenbatekoa
1. pertsona						
2. pertsona						
3. pertsona						
Justifikatutako zenbatekoa, guztira						

JUSTIFIKATUTAKO ZENBATEKOAREN ZEHAZTASUNAK

1. pertsona

Nominaren hilaibetea	Faktura noiz ordaindu den	Ordainsarien zenbatekoa (1)	Kontratazailearen kargurako gizarte-kargen zenbatekoa (2)	Justifikatutako zenbatekoa, guztira (1+2)
Justifikatutakoa guztira				

2. pertsona

Nominaren hilaibetea	Faktura noiz ordaindu den	Ordainsarien zenbatekoa (1)	Kontratazailearen kargurako gizarte-kargen zenbatekoa (2)	Justifikatutako zenbatekoa, guztira (1+2)
Justifikatutakoa guztira				

3. pertsona

Nominaren hilaibetea	Faktura noiz ordaindu den	Ordainsarien zenbatekoa (1)	Kontratazailearen kargurako gizarte-kargen zenbatekoa (2)	Justifikatutako zenbatekoa, guztira (1+2)
Justifikatutakoa guztira				

2022ko uztailaren 27a, asteazkena

Justifikatutako zenbatekoaren azken laburpena		
Eskatutako dirulaguntza (eurotan)	Deiadi honetan adjudikatutako kopurua (eurotan)	Justifikatutako gastuak (euroak)

Agiri bidezko justifikazioa

- Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko lan-kontratuaren benetako kopia edo, hala badagokio, esleitutako pertsonaren dedikazio eskusiboaren egiaztagiria.
- Dirulaguntzak estalitako aidiari dagozkion nomen benetako kopia, eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.
- Dirulaguntzak estalitako aidian kontratatzailearen kargura gizarte segurantzaren egindako gastuak egiaztatzeko kotizazio-agiriak.

Erantzukizunpeko adierazpena

Adierazten dut memoria honetan eta gehitutako agiritan jasotako datu guztiak egiazkoak direla